Aldiri, 2017, IV, **32**, 18-20, ISSN 1889-7185

PROIEKTUA

Euskara Zumaian: 1966-2016 eta gaur egun

Iragan hurbiletik gaur egunera, etorkizunean biziberritzen jarraitzeko

Laburpena: Azken berrogeita hamar urteotan, aurrerapauso nabarmenak eman dira euskara biziberritzeko prozesuan, hainbat elkarte, erakunde eta pertsonari esker; historia orokor nagusia jasota dago, baina ez tokian tokikoa, eta, gainera, sarritan ez da behar bezala ezagutzen eta baloratzen. Iragan hurbil hori aztertuta, eta bereziki dentsitateguneak, hobeto ulertuko dugu gaur egungo egoera, eta elkarteetatik edo taldeetatik eraginda, etorkizunera begirako hainbat helduleku aurkituko ditugu, euskara indartzen eta biziberritzen jarraitzeko.

Hitz-gakoak: ibilbide, biziberritze, arnasgune/ dentsitategune, elkarte, indartzen jarraitu.

Abstract: During the last fifty years, progress has been evident in the process of recovery of Euskera, thanks to the work of many associations, people and institutions; the general history of that process is written, but not local history, and, moreover, is often not known or valued as it should be. Analyzing this close past, and especially the hegemonic nuclei of Basque, we will better understand the current situation, and acting from the associations or groups, we will achieve some assists to continue strengthening and recovering the Basque language in the future.

Key words: travel, recovery, hegemonic space, association, continue strengthening.

Imanol Azkue Ibarbia
Geografia eta Historian lizentziaduna, teknikari Elhuyar Aholkularitzan

Bidaltze data: 2017-09-15
Onartze data: 2017-11-27

Sarrera

«Lurraldea eta Hizkuntza» graduondoan egiaztatu ahal izan genuenez, hizkuntzaren eta lurraldearen arteko harremana hamaika ikuspegitatik azter daiteke, helduleku ugaritatik, eta asko dira hizkuntzan eta lurraldean eragiten duten faktoreak eta zientziak. Baina guztietan ere protagonistak lurralde horretan bizi diren pertsonak dira, hizkuntza erabiltzen dutenak, eta graduondoaren amaierako lanaren bidez, hizkuntza biziberritzeko prozesuan pertsona horien eragina nabarmendu nahi izan nuen, gaia nire inguru hurbilera ekarrita, Zumaiara, eta azken berrogeita hamar urteotako denboraldira. Izan ere, iruditzen zait euskararen biziberritzearen historia orokorra nahikoa jasota dagoela, baina badagoela zer aztertua eta egina tokian tokiko historia eta istorioak jasotzen, berez daukaten balioa emateko eta egindakoa aitortzeko, batzuetan ez baikara kontziente bide horretan egindakoaz, eta ez dugu baloratzen, gainera.

Artikulu labur honetan, graduondoaren amaieran egindako lana izango dut mintzagai, baina lanaren mamiari baino gehiago, osagaiei edo proiektuan emandako pausoei helduko diet, agian beste norbaitentzat edo beste nonbait egiteko baliagarria izan daitekeelakoan.

Aspaldiko lotura

Euskal Herriko beste leku gehienetan bezala, Zumaiaren eta euskararen arteko lotura oso-oso aspaldikoa eta estua da, eta hori egiaztatzeko, bilatuz gero, adibide ugari aurki daitezke: agiri zaharrak, leku-izenak, ezizenak, gertaerak… Gainera, Zumaian ere euskarak baditu hainbat berezitasun hitzetan, doinuan, ebakiduran, esaeretan… Euskara estu lotuta dago Zumaiari, identitatean pisu handia dauka, eta zaila da imajinatzea euskararik gabeko Zumaia. Horregatik, euskararen iragan hurbileko historiari ekin aurretik, garrantzitsua da hori nabarmentzea, kontuan izatea.

Euskararen ibilbidea (1966-2016)

Euskal Herriko beste hainbat lekutan bezala, azken berrogeita hamar urteotan euskara biziberritu eta indartu egin da Zumaian, baina ibilbide horren deskribapena eta mugarriak apenas dauden jasota inon, are gutxiago elkarren segidan jarrita, elkarrekin daukaten harremana hobeto ulertzeko moduan. Ibilbide horretan, garrantzi berezia izan dute euskaraz bizitzeko testuinguruek edo dentsitateguneek, horietatik hedatu izan delako sarritan euskara beste esparru batzuetara. Graduondoaren amaierako proiektuan, ibilbide hori bi baliabideren bidez irudikatuta dago: lehena, denboraren lerroa, non jasota dauden 1966tik 2016ra arte euskara biziberritzen Zumaian izandako mugarri nagusiak, eragile eta elkarteekin; bigarrena, Zumaiako mapa, non kokatuta dauden eragile edo talde horien egoitzak edo nondik aritu ziren lanean. Bi horien bidez lortutako informazioa interpretatzeko eta azaltzeko, ibilbidearen kontakizuna dator ondoren, eta bertan azalduta dago euskararen bilakaera: urte askotan ezkutatuta eta gordeta egon ondoren, pixkanaka indartzen eta agerian jartzen hasi zen, kalera irteten eta espazio fisiko eta funtzionalak berreskuratzen, eta herria handitu ahala, leku berriak bereganatzen, nagusi izan arte. Prozesu dinamikoa izan zen, aldaketa askokoa, eta kontakizun horretan, protagonista nagusiak beste herri askotakoen antzekoak dira: Ikastola eta hezkuntza-eredua (gaztelania hutsezko eskoletatik D

eredu bakarrera), Udalak azpiegiturak sortzea eta indartzea (demokratizazioa eta alderdi politikoak, teknikaria, Euskara Zerbitzua, ordenantzak…), alfabetatzea eta euskalduntzea, euskara-elkarteak, Bertso Eskola, tokiko hedabideak, Interneteko komunitatea…; baina Zumaiak baditu bere berezitasunak, eta horiek daude jasota, hain zuzen ere, lanean. Horrekin batera, jasota dago non eta nola joan ziren elkartzen zumaiarrak elkarte edo talde formaletan; izan ere, interes komunen inguruan elkartzeko joera daukagu, eta elkarteetatik gure ingurua aldatzeko ere, interes komunen inguruan lanean; elkarteen bidez, komunitatean parte hartzeko eta komunitateko parte izateko bideak bilatzen eta lantzen ditugu. Talde eta elkarteak herri biziaren eta dinamikoaren adierazle dira, eta Zumaiakoen bilakaera ere denboraren lerro batean dago adierazita, eta taldeak multzokatuta (kultura, kirola, hezkuntza, gizartea, aisialdia…). Baina lanean batez ere azpimarratu nahi da biziberritze eta aldaketa horiek guztiak ez zirela berez edo bakarrik gertatu; aitzitik, hainbat lagunek eragin zituztela, batzuetan bakarka, beste batzuetan elkartuta, beste batzuetan instituzioetatik.

Euskara gaur egun, batez ere taldeetan eta elkarteetan

Iraganetik gaur egungo egoerara etorrita, hasteko, Zumaian euskara nola bizi den erakusteko hainbat datu daude jasota, batzuk ohikoak (kale-neurketaren emaitzak, euskararen indizea, hezkuntza-eredua…), beste batzuk ez hain ohikoak (bankuetako erakusleihoak, etxeko buzoian propaganda, kaleko ohar-tauletako kartelak…). Ikusten da badagoela itxaropentsu egoteko nahikoa arrazoi (ezagutzaren eta erabileraren datuak onak dira, D eredua bakarra da herrian, euskarak baditu planak eta azpiegiturak, euskara ikasteko edo hobetzeko aukera badago…), baina oraindik ezin etxafuegoak bota, badagoelako zer egina eta zer hobetua: euskaldunon hizkuntza-eskubideak ez daude beti bermatuta, arlo batzuetan oraindik euskara ahul dago, eredugarri izan beharko luketenek badaukate zer egina…

Datu horiekin batera, lanean bereziki jasota dago euskara nola bizi den gaur egun Zumaiako talde eta elkarteetan, horretarako hiru informazio-iturri nagusi erabilita:

1. Talde edo elkarte batzuen lagin adierazgarri bat hautatu eta galdetegia bidali, betetzeko. Guztira, 31ren erantzun (gaur egun 132 talde edo elkarte daude).
2. Talde edo elkarteotan parte hartzen duten herritarrengana jo, galdera batzuekin. Galdetegia googledriveko formulario batean jarri ondoren, ahalik eta gehien zabaldu, baita sare sozialen eta baleike. eus bidez ere. Guztira, 160 lagunek erantzun zioten galdetegiari.
3. Udal-teknikari batzuk elkarrizketatuta.

Bai elkarrizketetan, bai galdetegietan, guztiek ere antzeko galderei erantzun behar izan zieten: zer hizkuntzatan izaten dira ohiko bilerak? Zer hizkuntzatan izaten dira barne- eta kanpo-komunikazioak? Izan al da bilakaerarik azken urteotan? Zerk eragin du aldaketa? Ezarrita al dago hizkuntza-irizpiderik? Hizkuntzen erabilera dela-eta,



1. irudia ~ *Euskararen ibilbidea Zumaia, 1966-2016.*
Egilea ~ Imanol Azkue Ibarbia.

Aldiri, 2017, IV, **32**, 18-20, ISSN 1889-7185

2. irudia ~ *Euskararen habitatak Zumaian.*
Egilea ~ Imanol Azkue Ibarbia (moldaketa).

izan al da gorabeherarik?… Horrela, euskara zumaiarren bilguneetan nola bizi den ikuspegi desberdinetatik aztertuta, hainbat ondorio nabarmendu daiteke: Zumaian badira dentsitateguneak edo batez ere euskaraz funtzionatzen duten espazioak edo bilguneak, eta bereziki zenbait arlotan (kulturan, hezkuntzan…), baina badago zer hobetua beste batzuetan (adibidez, etxepeko edo garajeko bileretan); azken urteotan aurrerapauso handiak eman dira, baina horrek ez du ziurtatzen atzerapausorik gertatuko ez denik; badaude talde edo elkarte eredugarriak, praktika onekin, baina oso gutxik dauzkate ezarrita hizkuntza-irizpideak; euskara lehenesteko Udalak ezarritako betebeharrak (dirulaguntzak eskuratzeko, adibidez) oso akuilu garrantzitsuak dira…

Etorkizunerako helduleku batzuk

Azkenik, lanaren amaieran, aurrera begira jarri eta etorkizunean zenbait gairi heltzeko proposamena dago jasota lanean: hasteko, gomendio zehatz batzuk talde eta elkarteentzat, euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko beren egunerokoan; gero, edonorentzako (edo guztiontzako) moduko beste lan-ildo batzuk, etorkizunean ere Zumaian euskara indartzeko: zenbateko garrantzia daukan bakoitzak bere praktikari begiratzeak eta erabakiari irmo heltzeak; dentsitateguneek jokatu duten papera eta joka dezaketena; herri-identitatean euskarak izan behar duen lekua; herri-mugak gaindituta, eskualde-mailan jarduteko aukera; elkargune fisikoen (plazen, eraikinen…) eta egiturazkoen (taldeen edo elkarteen) premia; erabaki jakin batzuek zenbateraino errazten edo zailtzen duten herritarrak elkartzeko aukera; euskararen historiaz kontziente izatea, kontakizuna egitea eta ezagutzea…

Euskara izan

Zumaiaren eta euskararen arteko lotura sendoa agerian jartzeaz gain, lan honetan askoren bakarkako memorietan zegoena jasotzeko eta azaltzeko ahalegina dago, eta kontakizunari esker, etorkizunean Zumaian euskara biziberritzen eta euskara izaten jarraitzeko helduleku edo lan-ildo batzuk proposatzen dira.

:::